

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a

640. zenbakia

KOMUNIKAZIOA / Webgunearen helbidea www.bergara.net izango da aurrerantzean

Hainbat berrikuntza Udalaren webgunean

EDU MENDIBIL

Bergarako Udalaren webgunearen helbidea www.bergara.net duzue joan den abuztua ezker. Webgunearen helbide berriaren aurkezpena egin zuten atzo, eguena. Helbide aldaketaz gain, badira beste hainbat nobedade udal webgunearen gainean.

Victoriano Gallastegi alkatea eta Jabier Santamaria Udaleko informatika arduraduna izatekoak ziren atzoko aurkezpenean.

Webguneko hobekuntzen artean hauek aipa daitezke: turis-

teizuzendutako informazioa ingelesez jasotzeko aukera, udalbatzaren erabaki garrantzitsuenen laburpena eskuragarri izango da eta hiritarren iradokizunak, keak eta komentarioak hartzeko webgune-postontzia jarri dute. Era berean, udal aldizkariak webgunean ikusgai dira eta Udalaren lan eskaintzen hautaketa-prozesuaren jarraipen osoa egin ahal izango da. Kirol atal berria sortu dute eta Udalak antolatutako ekitaldien egutegia Interneten kontsultatzeko aukera dago.

UDAL ALBISTEEN HARPIDETZA

Berrikuntzen artean, udal albisteak nork bere e-postan jaso ditza-

ke aurrerantzean. Postaria aplikazioa Code&Syntax enpresak eta Goienak kudeatuko dute. Sistema berri horrekin pribatutasuna ziurtatuta dago, eta publikitatearen eta spam-aren bidalketa saihestuko da. Bi zerrenda daude, albisteak euskaraz edo erdaraz jasotzeko.

Oraindik, www.bergara.es eta www.vergara.es domeinuen erregistroa mantendu egingo da eta handik sartuko diren pertsona guztiak zuzenean www.bergara.net helbidera bideratuko dira.

Webgunearen bisitarien kopurua handituz doa, batez ere albisteen, lan eskaintzen eta ekitaldien kontsultari dagokienez.



Aranerreka kalean aparkaleku berriendako tokia

Aranerreka kalean aparkaleku berriendako lanak egiten hasi dira. Besteak beste, han ziren zuhaitzak kendu egin dituzte eta espaloia harralazak ere bai. Bertako auzokideek haserrea azaldu dute lanogatik, eta aparkalekuak egiteko zuhaitzak kentzeko beharra ote dagoen galdetzen dute. Horrez gain, Udalera bertara ere zuzendu dira kexa egitera.

Bergara - Albisteak - Noticias

Atrás Adelante Detener Actualizar Página principal Autorrelleno Imprimir Correo

http://www.bergara.net/News

Página inicial de actualidad Apple iTunes Soporte de Apple Apple Store Productos para Mac

BERGARAKO UDALA

Bergara | Udala | Turismoa | Helbideak | Kirolak | Albis

ALBISTEAK

Hemen zaude: Albisteak

Albisteak

2005-09-21 / 14:55

Garabi-kamioi gidari lanposturako azterketa teorikoko emaitzak

Bergarako Udalak garabi gidaria eta obra eta zerbitzuetako peoi espezialista kontratatze, atzo, irailak 20, egindako azterketa teorikoko emaitzak kaleratu ditu. [Osorik irakurri](#)

2005-09-21 / 10:08

Dokumentalista posturako onartuen zerrenda

Bergarako Udalak atzeratu dituzte dokumentalista

Zona de Internet

Webgunearen bisitarien kopurua handituz doa.

LABUR

Erretzeari lagatzeko ikastaroa eta 2-6 urte bitarteko haurrak dituztenendako eskolak

Ongizateko Prebentzio Zerbitzuaren eskutik, erretzeari lagatzeko ikastaroa izango da urriaren 7an eta 8an. Bestalde, 2-6 urte bitarteko haurrak dituztenendako eskolak izango dira urritik abendura. Argibideak 943 77 91 26 telefono zenbakian.

San Pedro parrokiako katekesia hasiko da hurrengo astean, 2. mailatik gorakoentzat

San Pedro parrokiako katekesia hasiko da irailaren 26an (2. eta 6. mailak), 27an (4. maila) eta 28an (3. eta 5. mailak). Egun horietan maila bakoitzari dagokion liburua erosi ahal izango da. Lehen mailako ikasleei aurrerago abisatuko zaie. Argibideak 943 76 32 80 (Maria Eugenia) telefono zenbakian.

DENOK BENIDORMera

Urriaren 22an
autobusa
zuzenean Bergaratik

Ibargarai 8 • Tel.: 943 76 08 43

Barceló
bidaiak

BOLU SUKALDEAK



2000
eguneko
garantia.
Aurrekontua
konpromiso
gabe.



Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

HERRI ESKOLAK / Gai ezberdinak jorratuko dituzte; Euskal Herriko historia aztergai izango dute urriaren 4tik 29ra

Herri Mugimenduan biltzen diren taldeek eskolak antolatuko dituzte ikasturtean

E.M.

Herri Mugimenduan biltzen diren taldeek antolatuta, hainbat ikastaro izango dira ikasturtean zehar. Herri eskolei hasiera emateko Euskal Herriko historia aztergai izango da urriaren 4tik 29ra bitartean. Izenematea zabalik dago.

Herritarron jakin-mina asetzea, mundua hobeto ezagutzea eta ikuspegi kritikoa garatzea da herri eskolen helburua. Horrela, gai ezberdinei buruzko ikastaro, hitzaldi, mahai inguru, zinema emanaldi eta abar antolatuko dituzte Herri Mugimenduko taldeek ikasturtean zehar: "Interesatzen zaizkigun gaiak jorratu, landu eta ulertzeko baliabideak ahalbidetuko dituen gunea, pertsonen arteko komunikaziorako gunea sortu nahi du. Pertsona moduan hazteko,

gizarteak ezartzen dizkigun tabuei aurre egiteko, itxi nahi dizkiguten begiak guztion elkarlanarekin zabaltzeko".

EUSKAL HERRIKO HISTORIA

Herri eskolekin hasteko Euskal Herriko historia izango da aztergai urriaren 4tik 29ra. Gite-Ipes elkarteak arduratuko dira ikastaroaz: sei hitzaldi egingo dituzte. Lehenbizikoa Txema Uriarte irakasleak egingo du: *Frantziar iraultza eta honen eragina*. Hitzaldi guztiak kultura etxean izango dira, martitzen eta eguenetan, 19:00etan. Lehen eskolari amaiera emateko euskal mitologiari buruzko tailerra egingo da urriaren 29an, 10:00etan.

Interesa duen edonork har dezake parte eskoletan. Izenematea 695 72 64 94 telefonoan edo herrieskolak@euskalherria-org helbidean egin daiteke. Argibide gehiago www.herrieskolak.org web orrialdean.



ARTXIBOA

II. Errepublika eta Guda izenburuko hitzaldia izango da urriaren 13an. Irudian, Gernikako bonbardaketa, 1937an.

Bergarako hezkuntzaren gaineko gidaliburua kaleratu du Udalak

E.M.

Udaleko Hezkuntza Zerbitzua gidaliburua aurkeztu zuten martitzenean. Aipatutako gidaliburuaren herriko ikasle, irakasle eta gurasoendako interesgarriak diren hezkuntza jarduerak eta zerbitzuak jasotzen dira. Iñigo Iñurrategi Udaleko Hezkuntza buruaren arabera, "hezkuntza arloan egiten den lana sailkatu nahi izan dugu, sail bakoitzaren helburuak eta ekintzak zehaztuz".

ESKURAGARRI DAGO

Gidaliburuak 68 orrialde ditu eta interesatuek kultura etxean jaso dezakete. 1.000 ale kaleratu ditu Udalak. Urrian www.bergara.net helbidean izango da.



E.M.

Nagore Narbaiza Hezkuntza teknikariak eta Iñigo Iñurrategik aurkeztu zuten gida.

LABUR

Haurrendako jolas parkea zapatuan Munibe plazan, Bedelkar elkartearen eskutik

Bihar, zapatua, haurrendako jolas parkea izango da Munibe plazan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bedelkar dendarien elkarrekin antolatuta, gaztelu puzgarriak eta motor txikiak egingo dira, besteak beste.

Jatetxe eta tabernetan lanean ari direnei zuzendutako euskara ikastaroa

Udalak eta Udal Euskaltegiak jatetxe eta tabernetan lanean ari diren euskara ikastaroa antolatu dute. Urriaren 4tik abenduaren 21era izango da ikastaroa (60 ordukoa). Izenematea Udal Euskaltegian (943 76 44 53), irailaren 29a baino lehen.

Mikel Garaiondo preso osintxuarrari ongi-etorria egingo diote zapatu arratsaldean

Bergarako Askatsunak adierazitakoaren arabera, Mikel Garaiondori ongi-etorria egingo diote zapatuan, hilaren 24an, Osintxun, 20:00etan. Garaiondo 2003ko azaroan atxilotu zuten, Tarbesen atzemandako paperetan oinarrituta. Irailaren 13an utzi zuten aske.

EDEL

TAPIZ DENDA

Etterako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ATLETISMOA/ Antxintxika taldeak antolatuta, ibilbideak 11 kilometro izango ditu

Soraluze eta Bergara arteko lasterketa urriaren 12an

EDU MENDIBIL

Antxintxika Triatloi Taldeak antolatuta, Soraluze eta Bergara arteko korrika lasterketa jokatu da urriaren 12an. Ibilbidea trenbideetik izango da eta partaideek 11 kilometro egin beharko dituzte. Helmuga San Martin plazan jarriko dute.

Antxintxika Krosa Servimasa Sari Nagusia jokatu da datorren urriaren 12an, 11:00etan. Irteera, esan bezala, Soraluzen izango da eta partaideek trenbide zaharretik etorriko dira Bergarara. Bergaran, Zubieta, Fraiskozuri, Agorrosin, Matxiategi, Ibargarai eta Iralatik igaroko dira eta helmuga San Martin plazan izango da.

Izenematea sinbolikoa izango da, 3 eurokoa, eta jasotzen den dirurekin Antxintxika taldeko Xabi Lekuere laguntzeko bideratuko da. Hain zuzen ere, urriaren Hawaii Iron Man proban hartuko du parte Lekuere. Gastuei aurre egiteko zuzenduko da dirua.



Lasterketa herrikoia izatea da antolatzaileen asmoa.

ATLETISMO AMATEURRA

Antxintxika taldeko Aitor Rementeriak esan digunez, "Antxintxika izena trenbidean korrika ibiltzen genuen jendearen aldetik sortu zen, eta proba hau antolatzean atleta amateurraren figura aldarrikatu nahi dugu". Hasiera baten, lasterketa Arrasate eta Bergara artean izatea nahi zuten

baina hainbat arazo tarteko, ibilbidea aldatu behar izan dute. Arrasate Atletismo Taldeak eta Bergarako Udalak laguntza eman dute.

Behobia lasterketa gertatzen ari direnendako indarrak neurtzeko proba egokia izango da. Izan ere, handik hilabetera, azaroaren 13an jokatu da Behobia.


Igeriketa ikastaroak urritik abendura Agorrosingo igerilekuan

E.M.

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, urritik abendura bitartean igeriketa ikastaroak izango dira Agorrosingo igerilekuan. Haur, gazte edo nagusiei zuzendutako ikastaroak dira. Igeriketaren ikasi edo maila hobetzeko aukera izango da. Langabetu, etxekoandre eta erretiratuendako prezio bereziak izango dira. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

IGERILEKUA ZABALIK

Garbiketa lanengatik itxita egon ondoren, domekan, hilaren 25ean, zabalduko dute berriz igerilekua.



Astean zehar itxita egon ondoren domekan zabalduko dute igerilekua.

LABUR

Raul Santamartak (Seguros Bilbao) irabazi zuen San Martin Txirrindulari Saria

Seguros Bilbao taldeko Raul Santamartak irabazi zuen domekan jokatuako San Martin Txirrindulari Saria. Helmugara bakarrik heldu zen Santamarta, bigarrenari 44 segundoko alde ateratzen ziolarik. Lehen bergararra Kepa Varela izan zen.

Bergara KEko taldeek lau futbol partidu jokatu dituzte aste bukaeran Ipintzan

Lau futbol partidu jokatu dira aste bukaeran Ipintzan: zapatuan, nesken futbol-8ko taldeak Lagun Onak hartuko du, 11:00etan; ohorezko kadete mailako mutilen taldeak Vasconia izango du bisitari, 16:30ean, eta ohorezko gazte mailakoek Ondarroako Aurrearen aurka jokatu dute, 18:30ean. Domekan, nesken taldeak Gasteiz Cup taldearen aurka jokatu du, 11:30ean.

Igeriketa egokituko ikastaroa eta adimen urritasuna dutenendako gimnasia eskolak

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta, ezgaitasunen bat dutenei zuzendutako igeriketa egokituko ikastaroa eskainiko dira. Era berean, adimen urritasuna dutenendako gimnasia eskolak ere egingo dira. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.



Pol-Poleko beteranoek Val de Aranen

Pol-Poleko beteranoek ekin diote denboraldi berriari. Irailaren 9tik 11ra bitartean Val de Aran aldera joan ziren. 52 lagunek hartu zuten parte irteeran. Ostiralean Bonaiguatik Saldura joan ziren; zapatuan Tunelatik Estany de Mar leporaino (2.502 m) abiatu ziren (goian, atzean lakua eta Montarto mendia ikusten direla) eta domekan Grottes de Betharramen ibilbidea egin zuten, Lourdes inguruan. Hurrengo irteera urriaren 9an egingo dute, Bakedanora eta Ziordira, Nafarroara.

FRANTSES IRAKASKUNTZA

Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2005-2006 ikasturtea

Ikastaroaren hasiera:

urriaren 3a

Izenematea: irailaren 28ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00
eta 18:00-20:00

943.76.30.55

BERGARA

Margoak

Certificado ISO 9001 por

BQi

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

PILOTA/ Lau partidu gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Kluben arteko txapelketa


E.M.

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako lau partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Bigarren kadete mailan, Aritz Rezustak eta Gorka Irizarrek Urnietako ordezkarien aurka jokatu dute; bigarren gazte mailan Andoni Elortzak eta Ibon Berrandok Tartaldiko ordezkarien aurka neurtuko dituzte indarrak eta lehen bikoteak, Oier Aldaik eta Jon Larrañagak osatutakoak Mundaroren aurka jokatu du. Azkenik, nagusien

mailan, Igor Gutierrezek eta Ander Muguruzak Andazpeko bikotea izango dute aurrez aurre. Aurreko jardunaldian Muguruzak eta Gutierrezek Aretxabaletako Errasti anaiei irabazi zieten, 12-22. Nagusien mailako bigarren bikoteak, Eneko Muguruzak eta Julen Aranburuk Ordizian galdu zuten, 22-4.


ABENDURA ARTE

Liga sistema jarraituta, Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa abenduaren 4ra arte jokatuko da. Finalak Gabonen atarian izango dira.



Kadete, gazte eta nagusien mailan lehiatuko dira bergararrak Kluben Arteko Txapelketan.

BERRIGARA



Espainiako Itzuliko azken etapan

Jon Unamuno eta Xabier Uribesalgo Madrilan izan ziren domekan, Espainiako Itzuliko azken etapa jarraitzen. Mendiko saria irabazi duen Joaquim Rodriguez Unamunorekin ibilitakoa da amateurretan, Iberdrola taldean, eta katalana animatzera joan ziren Xabier eta Jon. Gorka iagoera irabazi zuen 2000. urtean Rodriguezek. Matxin Saunierreko entrenatzailearen bitartez lasterketa gertutik jarraitzeko eta hainbat txirrindulari agurtzeko (tardean Marino, Escartin eta Neil Stephens txirrindulari ohiak) aukera izan zuten.

Labegaraietako areto futboleko txapelketa hasiko da bihar

E.M.

Bihar, zapatua, Labegaraietako areto futboleko txapelketa hasiko da. Txapelketaren 20. ekitaldia da aurtengoa. 22 talde izango dira lehiatzaileak eta multzo bakarra osatu dute. Beraz, talde guztiek elkarren aurka jokatu dute liga txapelduna erabakitzeko. Ondoren, kopa txapelketa jokatuko da.

HAMAR PARTIDU ASTE BUKAERAN

Zapatuan honako partiduak izango dira: Mongatxurrak-Belengua (09:30) eta Aterpe-Komando (10:30).

Domekan, berriz, beste zortzi partidu iragarrita daude kiroldegian: Pub Irish-Agirrebeña (09:30), A Ze Flaxa-All Blacks (10:30), SDTNT-Niu Tim (11:30) eta



Errotagain taldea izan da azken ligako txapelduna.

BERRIGARA

Errotagain-Guri Guri (12:30). Arratsaldean, Brescia-Txakurra (16:00), Equipo-Makanaki (17:00), Kalaveras-Egurre (18:00) eta

Pirulotarrak-Paco Cia (19:00) jokatuko dira.

Beltzez agertzen diren taldeei epaile lanak egitea tokatu zaie.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK: Matxiategi 3 • 943 76 12 22
SUKALDEKO ALTZARIAK: Matxiategi 4 • 943 76 37 53

PINTURA/ Erakusketa kultura etxean

Ageriko pintura lehiaketako lanak ikusgai daude Kultura etxean hil amaierara arte

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kultura etxean ikusgai daude hilaren amaierara bitartean joan zen domekan egin zen Ageriko Pintura Lehiaketako lanak. Bestalde Juan Jose Altuna bergararraren margolanak Eibarren ipini dituzte; eta Nahikari tabernan M. Fran Ereña pintore eibartarrarenak.

San Martin jaietan, domekan, egin zen Ageriko Pintura Lehiaketa. 30 lagunek jardun zuten herriko hainbat txokotan margolanak egiten. Horietatik sei bergararrak: Selena Lizartaburu, Juan Gonzalez, Unai Azkarate, Gorka Untzueta, Jose Luis Azkarate eta Nerea Muxika. Azken bi hauek bergarar onenaren saria jaso zuten bakoitzak bere mailan.

Ageriko Pintura Lehiaketan 30 parte-hartzaile izan ziren; horietatik bost bergararrak


Nagusien mailan lehen saria Juan Carlos Lang margolariak jaso zuen; beste sarituak Koldo Goienola eta Esteban Oroz izan ziren. Gazteen mailan, berriz, Miriam Gezalagak, Abraham Larrañagak eta Javier Ruanok jaso zituzten sariak.

Lehiaketako lanekin erakusketa ipini dute Kultura etxean. Irailaren 30era arte egongo dira lanak ikusgai astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara bitartean; eta zapatu eta jaiegunean 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara

ALTUNAREN LANAK EIBARREN

Bestalde, Juan Jose Altuna Aki zu pintore bergararraren margolanak Eibarko Arrate Kultur Elkartean (Zuloagatarren 3) egongo dira ikusgai gaurtik, urriaren 2ra bitartean. Astegunetan 19:00etatik 20:00etara egongo da zabalik aretoa; zapatu eta jaiegunean, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Nahikari tabernan, berriz, irailaren amaierara bitartean Mari Fran Ereña eibartarraren margolanak egongo dira ikusgai. Olio eta marrazketa landu ditu batez ere, baina akuarela ere gustuko du.



Kultura etxeko erakusketa gelan ikusi ahal izango dira lan guztiak.



Gabero abesbatzak jendea behar du

Ikasturte berriari ekin dioten honetan, Gabero abesbatzakoek 13 eta 26 urte bitarteko jendea behar dutela jakinarazi nahi dute.

Irailaren 27an hasiko dituzte entseguak, 19:00etan Zabalotegiko dorrean. Lehen saiora joan eta metodologia ezagutu ostean, egun batzuetan probatzeko animatu nahi dituzte bergararrak. Abestea gustuko duten guztiei egin nahi diete gonbita.

LABUR

Azkaiter Peloxen kontzertua gaur Arrano tabernan

Unai Azkarate, *Azkaiter Pelox*, kantari bergararrak kontzertua eskainiko du, gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arrano tabernan. Berak sortutako kantuez gain, artista ezagunen abestien bertsioak joko ditu.

Angiozarko jaiak zapatu eta domekan ospatuko dituzte

Angiozarren, zapatuan, bazkalostean, plater tiroketa saioa izango da eta arratsaldean haur jolasak eta briska txapelketa. Gauean, herri afaria, kontzertua eta DJ festa. Domekan, meza eta pilota partidak egongo dira goizez. Arratsaldean, herri kirolak, zezen eta pottokak eta trikitilariak. San Migel egunean, hilaren 29an, meza 11:00etan eta haurrendako jolasak arratsaldean.

Kontzertuak gaztetxean zapatu eta domekan

Musikak bi hitzordu ditu asteburuan gaztetxean. Bihar, zapatua, kontzertua izango da, 22:30ean. Mundo Matadero, M.P.B. eta Insolentes taldeek jardungo dute. Domekan, irailak 25, Beasaingo Mantak No-ken kontzertu akustikoa izango da, 19:00etan.

Jardun elkartearen Jolasleku Ibiltaria gaur Espoioian

Jolasleku Ibiltaria programa ipini du abian Jardunek. Lehen saioa gaur izango da Espoioian, 17:00etatik 19:00etara. Bigarrena, berriz, irailaren 30ean ordu berean frontoian. Egitasmoaren helburua da 6-12 urte bitarteko umeei euskaraz jolasteko baliabide egokiak eskaintzea, euskal kantu eta jolasen bidez.

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com <http://www.megadenda.com>

MINGAINARITIRAKA



KANPOTARRAKBERGARAN

LIZZY FONT

25 URTE / KUBATARRA / IAZ MAIATZEAN ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Kubako ia gauza guztien hutsunea nabaritzen dut: familiarena, klimarena, hondartzena...”

AINTZANE IRIZAR

Kuban egon berri da Lizzy; orain dela urtebete eta hilabete batzuk Bergarara bizi izatera etorri zenetik, jaioterrira egin duen lehenengo bidaia izan da, eta benetan hunkituta zegoen oraindik.

Villaclara probintziako Sagua La Grande herrikoa da Lizzy; orain dela urte batzuk haraxe joan ziren bergarar batzuk brigadista. Hantxe ezagutu zuen gaur egun bere senarra dena. Urte batzuetan elkar ezagutu zuten, eta esan bezala, iaz maiatzean etorri zen Lizzy Bergarara.

“Egia esan, hasieran pixka bat galduta ibili nintzen. Oso arraro sentitzen nintzen, nire etxetik horren urrutia, baina pixkanaka moldatu naiz hemengo bizimodura”, azaldu digu.

“Ez ninduen ia ezerk harritu; izan ere, urteak pasatu nituen hemengo jendearen, paisaiaren eta bizimoduaren gaineko kontuak entzuten; banekien zer aurkituko nuen”, gogoratzen du.

Dena dela, hainbat gauzak bai harritu zuten: “Gogoratzen naiz oso bitxia iruditu zitzaizkidan hondartzan hara eta hona paseoan ibiltzea; ez nuen ulertzen zertan zebilen jendea. Kuban jendeak ez du paseatzen”, azaldu digu. “Koadrilen afariak eta horrelakoak ere bitxiak iruditu zitzaizkidan”, diosku.

HARRERA OSO ONA

Jendeak oso ondo hartu zuela azaldu digu Lizzyk: “Senarraren familia eta lagunak, batez ere, zoragarriak dira. Euskal Herrian ez dut arrazakeriarik ikusi”, diosku.

Dena dela, lana topatzeko arazoak izan ditu. “Elikagaien teknikaria naiz; ikasketa horiexek egin nituen Kuban, baina hemen ez dit ezertarako balio titulu horrek”, azaldu digu. Ikasketak berriro egin beharko lituzke, baina oso garestia dela azaldu digu.

Denetariko ikastaroak egin ditu: informatika ikastaroak,

“Euskara ikasten hasi nintzen, baina, lan kontuengatik, laga egin behar izan nuen”

harakin ikastaroak... Era guztietakoak egin ditu. Ez da geldi egoteko neska Lizzy. Hainbat lan ere izan du; zerbitzari ibili izan da, besteak beste.

Euskara ikasten ere jardun zuen, baina lan kontuak zirela eta, laga egin behar izan zuen. “Baina, ez dut alde batera laga euskara ikasteko asmoa; ahal bezain pronto hasiko naiz”.

HERRIMINA

Herrimin handia sentitzen du Lizzyk; Kubatik zeren hutsunea nabaritzen duen galdetuta, segituan erantzun zigun: “Guztiarena”. Negar malkoren bat edo beste ere erori zitzaion. “Kuban bisitan egon berri naiz, eta hunkitu egiten naiz”, azaldu zigun Lizzyk. “Hango hondartzak, klima, familia... Denen hutsunea nabaritzen dut. Urakanena ez, beste guztia-rena”, adierazi digu.

Familiaren bisitarik ez du oraindik jaso; izan ere, bidaia oso garestia da. Baina etorkizunean etortzeko aukera izango dutela espero du.

Hainbat kubatar ezagutzen du Lizzyk Bergaran; euretako bat, gainera, bere herritarra du, Sagua La Grandekoa. Eurekin harremana izatea atsegina da Lizzyrendako.

Edurne Uribesalgo

IZEDER DENDAKOA

Orain dela hamahiru bat urte jarri zuten Izeder denda, Arruriagan, eta iraila ezkerreko lokal berria daude, Telesforo Aranzadin; Edurnek bi lankide ditu, Helena eta Koro. Eskulanetarako materiala saltzeaz gain, ikastaroak ere egiten dituzte.

Zaletasuna lanbide bihurtu duzu. Ez da plan txarra, ezta?
Ez, oso plan ona da; egia esan, alde horretatik zorte handikoak garela esan behar da.

Ze eskulan egiten diharduzu oraintxe?

Margolanak; margotzea da, gainera, gehien gustatzen zaidana.

Zeuk egindako zenbat apaingarri duzu etxean?

Uf! Etxeko ia gauza guztiak neuk egin ditut: oheak, aulkiak, armairuak, apaingarriak...

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Sormena eta jendearekin harremana izatea; ez dendan bakarrik. Izan ere, eskulan ikastaroak eskaintzen ditugu eta harreman politak egiten ditugu jendearekin.

Eta gutxien?

Ordutegia; denden ordutegia oso lotua da.

Lokal berria jarri duzue denda. Espazio handiagoa baduzue, behintzat.

Bai, eta kokapen hobea; ea hobeto joaten zaigun.

Egin duzun azkeneko oparia?

Semeari neuk egindako bandeja bat oparitu nion, asteburuetan egongelan afaltzeko.

Eta jaso duzuna?

Oinetako batzuk.

Kolore bat?

Urdina.

Irudi bat?

Hartzarena.

Egin duzun eskulan bitxiena?

Antzinako erlojuak, santuak, amabirjinak eta horrelakoak berritzea lan bitxia da.

Asteburu baterako plan ideala?

Mendira joatea asko gustatzen zait; bestela, Donostiara.

Gustuko mendi bat?

Kurtzebarri.

Bukatzeke, amets bat?

Pobrezia amaitzea.

AINTZANE IRIZAR



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua


Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze elizatakoak dira honako atea eta ponteak?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

RUBEN CUESTArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ruben!
Galderaren erantzun zuzena: **Abertzaleena.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Dorita atun argia
Landare-oliotan, 260 g-ko lata

1,95 €

324 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Uso postuak eraikitzen, Trekutzen

Argazkian ikusten dugun koadrila honek uso postuak eraikitzen jardun zuen Trekutz inguruan. Argazkia Gaztelugain elkartearen aurreko aldean aterata dago, orain dela hogeit urtetik gora. Hona hemen argazkian azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik hasita: Xabier Guridi, Jesus Toledo, Andrés Toledo, Antxon Biteri, Jose Migel Agirre, Jaime Larrea, Jose Mari Mendizabal, Jose Zabaleta, Jose Mari Jauregi, Jose Muxika, Benito Artolazabal, Paulo Iparragirre, Juan Kruz Lizarralde, Bixente Rajado eta Felix Alonso.

Behean: Patxi Irizar, Bittor Berraondo, Luis Manuel Altube, Jose Luis Unamuno Aldai, Iñaki Toledo, Juan Pedro Barkero



(atzean), Jose Alcantara (atzean), Jose Luis Ena, Alex Lete, Lorentxo Azkarate, Jon Arregi eta Jose Luis Arregi.

Argazkia: Jose Luis Arregi

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 23
ESTELLA. Matxiategi 5 ... 943 76 19 63
- ZAPATUA, 24
MOZOS. Iparragirre 2 ... 943 76 12 15
- DOMEKA, 25
MOZOS. Iparragirre 2 ... 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 26
CAMACHO. Oxirondo 4 ... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 27
ZABALA. Barrenkalea 25 ... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 28
GUALLAR. San Antonio 5 ... 943 76 11 05
- EGUENA, 29
ESTELLA. Matxiategi 5 ... 943 76 19 63

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) ... 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa ... 943 77 91 05
Antzuolako Udaltzaingoa ... 943 76 62 46
Ertzaintza ... 943 53 47 20
Osasun etxea ... 943 76 24 40
Asepeyo ... 943 76 16 43
Pakea ... 943 76 13 49
Angiozarko medikua ... 943 78 90 27
Antzuolako medikua ... 943 76 62 23
Odol emaleak ... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06

GARRAIOAK

- Taxiak ... 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ... 943 77 91 32
- Igerilekuak ... 943 76 20 51
- Kultura etxea ... 943 77 91 58
- Liburutegia ... 943 77 91 62
- Kiroldegia ... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia ... 943 76 14 92
- Erregistroa ... 943 76 13 15
- Jardun ... 943 76 36 61
- Postetxea ... 943 76 26 85
- Bedelkar ... 943 76 04 68
- Akulu AEK ... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ... 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Jandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK: San Juan (Torunas aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildu okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatebidea.
- Labegaraieta/Olabarretik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolita (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz hasi duzu ikasturtea eskolan?



MAIKA GALLASTEGI

Ongi. Oporretan ongi nengoen eta ez nuen eskolara etortzeko gogorik, baina hala ere etorri egin behar. Laugarren mailan nabil eta ez dut aldaketarik sumatu oraingoz. Ikasgaiak ere lehenengo berberak dira.



NEREA ETXANIZ

Ongi. Oporretan gustura egon arren gogoia nuen eskolako lagunekin berriz egoteko eta pozik hasi dut ikasturtea. Irakaslea lehenengo berbera da eta ez dut aldaketarik ikusi. Gehien soinketa gustatzen zait.



GARAZI AGIRREZABALA

Pozik hasi dut ikasturtea, oporrek pixka bat asper-tuta nengoen eta eskolara etortzeko gogoia neukan. Irakaslea lehenengo berbera da eta ikaskideen artean bakarra da berria, baina denok ongi moldatzen gara.



JULEN IRIZAR

Ongi hasi dut, gogoz. Bosgarren mailan nabil eta aurten irakasle berria izango dugu. Hala ere, lehen bi asteetan ingeleseko eskolak baino ez ditugu eta oraindik ez gara harekin egon; badut ezagutzeko gogoia.



HODEI PEREZ

Gustura hasi naiz eskolan, banuen gogoia lagunekin egoteko eta gauza berriak ikasteko. Aurten irakasle berria izango dugu. Gehien gustatzen zaizkidan ikasgaiak ingurunea eta ingeles dira.



ANDONI ETXEZARRETA

Oporretan hobeto nengoen eta ez dut gogo handiarekin hasi ikasturtea. Aurten irakasle berria dugu eta ongi moldatzen gara harekin. Ikasgai guztiak ditut gustuko; gehien euskara ikasgai.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZABORRA UDALETXE ONDOAN Behin baino gehiagotan jaso ditugu udaletxe ondoko edukiontzien gaineko kexak. Orain ere herritar batek deitu digu: Artekalera igotzeko eskaileren ondoan horrenbeste zabor biltzea lotsagarria dela dio. Goiko argazkia joan den astelehen arratsaldean (hilaren 12an) ateratakoa da. /E.M.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Melatu"



— Kriston melatua artu giñuan Urbixatik Arantzazura bittartian.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA



Film laburren aldean lana ezberdina izan da film luzea egiterakoan. Profesionala izateak

gauzak erraztu egiten ditu, talde osoa horretan dago, jendea kobratzen ari da lan hori egiteko. Labor bat egiten duzunean, berriz, zuk egin behar duzu dena, produktzioa, zuzendaritza... Ez dago dirurik gauzak ordaintzeko. Nik oraintxe egin dut film labor bat, *Sarean du izena*. Aspalditik diru laguntza bat nuen laborra egiteko, eta *Aupa, Etxebeste!* filma amaitutakoan egin dut. Oraindik ez dut bukatu, soinua falta zait. *Topeka*-ren antzerakoa da; arrantzari buruzko dokumental bat da, kritika bat.

ASIER ALTUNA / Zinema zuzendaria 'Berria' / 05-09-20

BERAIEKDIÑOÈ/ Unai Lopez



Sustar-Berri

Aurtengo San Martin jaiak ere joan zaizkigu, udazkena gertu dugunaren seinale. Hain herrikoiak diren egun hauetan ez dira falta izan ohiko suzko erruberen kolore eta hots sarkorrak, barazki eta loreen azokako bizitasuna edo tradizioz beteriko danborradaren burrunbada. Benetan gustuko ditut jai hauek.

Bosgarren urtez ere Sustar-Berri taldekook nagusien danborradan parte hartu dugu, jantzi zuri-berdeak soinean jarri, lagunarteko afaria egin eta *rataplan!* Helburu zehatz batekin sortu genuen talde hau, gazteok ordura arte parte hartze itxia zuen nagusien danborradan ate hori zabaltzea, alegia. Ez zen erronka makala izan, San Martinetako danborradaren etorkizuna jokoan zegoen.

Izan ere, urte batzuen burura begira nagusien danborrada hau Mendekoste jaiak, aratusteak edo herriko beste edozein usadio bezala gazteon

parte hartze eta atxikimenduen premia larrian dago. Azkenaldian guztian ahotan dabil ekintza hauetan belaunaldien gizalegezko errelebuia ez dela ematen ari; ondorioz, herriko giro motelaz kexu gabiltza. Meritu handiz hor elkartzten da astero gazte talde

"Gizarte bezala norbere erosotasun bakartian erortzen ote gabiltzan beldur naiz"

bat giro hori suspertzeko asmoz, ekimen bikaina benetan. Hala ere, gutxi batzuei baino guztioi dagokigu, eta gazteoi hein handiago baten, gure herri honen ohitura, ekintza, azken batean giroa bultzatzeko erantzukizuna.

Gizarte bezala norbere erosotasun bakartian erortzen ote gabiltzan beldur naiz, elkarrekin burututako ekintzoi dagokien baino garrantzi gutxiago emanez. Joera honen aurrean danbor-jole talde honi esanahi berezidun izena jartzea nahi izan genuen: Sustar-Berri. Lorategi urdin hau sustrai berrien behar estuan dagoela iruditzen zait betiko kolore, bizitasun eta edertasunak mantentzen ditzen.

HAUGIROA!

MINIMOA 10 °C
Domeka, 18

MAXIMOA 31 °C
Eguena, 15

ASTEKO EURIA (l/m²) 18,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	26 °C	15 °C	— l/m ²
Eguena, 15	31 °C	14 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 16	24 °C	15 °C	177 l/m ²
Zapatua, 17	16 °C	14 °C	0,4 l/m ²
Domeka, 18	18 °C	10 °C	— l/m ²
Astelehena, 19	20 °C	6 °C	— l/m ²
Martitzena, 20	21 °C	5 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Iratzi Agirreazaldegia
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberebar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a / 257. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Ibarre auzoa urbanizatzeko proiektua onartu dute iraileko osoko bilkuran

AINZANE IRIZAR

Iraileko osoko bilkuran, besteak beste, Ibarre auzoa urbanizatzeko proiektua onartu zuen udalbatzarrak. Proiektua onartuta, gutxi barru aterako dituzte urbanizazio lanak lehiaketa publikora. Lanen aurrekontua ia 160.000 eurokoa izango da.


Aurrera doa Ibarre auzoa urbanizatzeko prozesua. Dagoeneko onartu dute urbanizazio proiektua; iraileko osoko bilkuran eman zion onarpena Udalak.

Urbanizazio lanen aurrekontua da 159.594 eurokoa. Behin proiektua onartuta, laster lehiaketa publikora aterako dituzte urbanizazio lanak. Seguruena, datorren hileko osoko bilkuran onartuko dituzte baldintza pleguak.

AUZOARI ESPAZIOA EMAN

Auzoari espazioa ematea da proiektu berriaren helburua. Gauzak horrela, eremu berria zabalagoa izango da; zabalera, zazpi metro gehiago izango ditu, eta luzeran, berriz, hamaika metro irabaziko ditu.

Batetik, aparkalekuak egingo dituzte; 24 autorentako tokia egongo da. Aparkalekuetako bat gutxitu fisikoendako izango da.



VALEN MORLUX

Udalak egindako irudia; gutxi gorabehera horrela geratuko da Ibarre auzoa.

Orain aparkaleku gutxi daude eta, gainera, ez dira batere erosoak, bereziki, igogailuak jarri zituztenetik.

Auzotarrak egoteko espazio librea ere egingo dute. Horrek ere espazio zabalagoa emango dio auzoari. Alde batetik, umeendako jolasak jarriko dituzte; 80 metro koadro izango du espazio

*Umeendako jolasak,
24 aparkaleku eta
zona berde txiki bat
egingo dituzte
urbanizazio lanetan*

horrek. Bestetik, zona berde txiki bat ere izango du auzoak.

Azkenik, aipatzekoa da lan hauen aurrekontuaren zati handi bat Diputazioak hartuko duela bere gain. Izan ere, diru-laguntza berezi bat izango dute lanok; 2.000 biztanletik beherako herriek ematen zaiena. %60 ordainduko du Diputazioak.

HEZKUNTZA

Helduendako Heziketa Iraunkorreko eskolan izena emateko aukera irail osoan zehar

A.I.

Irail osoan zehar izango dugu aukera Helduendako Heziketa Iraunkorreko eskolan izena emateko. Gure ezagupenak eguneratzeko, gauza berriak ikasteko edo bigarren hezkuntzako graduatua ateratzeko aukera eskaintzen digu eskola horrek, Antzuolatik irten beharrik gabe.

Urrian hasiko dituzte Helduendako Heziketa Iraunkorreko eskolak, Antzuolan, Herri Ikastetxearen eraikinean.

Izena emateko epea irailean bukatuko da; hilabete osoan zehar Olanan Etxean egongo da irakasle bat, asteleheneetik egubakoitzera, 15:00etatik 17:00etara. Hantxe izango dugu izena emateko aukera, baita informazio gehiago jasotzekoa ere. Ize-

na emateko beste aukera bat da honako telefono zenbaki honetara deitzea: 943 76 44 52.

Gure ezagupenak eguneratzeko, gauza berriak ikastea edo bigarren hezkuntzako graduatua ateratzeko aukera horietan eskaintzen dizkigu HHik.

Orain dela zortzi bat urte hasi ziren Antzuolan. Orditik, hainbat antzuolarrek jardun dute, emakumezkoak gehienak.

XI. ARGAZKI LEHIAKETA

Udalak hamaikagarren aldiz abian jarri du argazki lehiaketa. Argazki digitalak ere aurkeztu daitezke. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira urriaren 27a baino lehen edo honako helbidera bidali: kultura@antzuola.net. Azaroaren 5ean, 6an, 12an eta 13an erakusketa egingo dute aurkeztutako argazki guztiak. Sariak orduan banatuko dituzte.

LABUR

Ipuin kontalaria izango dugu bihar, zapatua

Bihar, zapatua, Behibiti's taldeko ipuin kontalaria izango ditugu. Udal Liburutegiaren egingo dute ipuin kontalaria saioa, arratsaldeko sei ordu hasita. Hiru eta sei urte bitarteko umeei zuzenduta dago ekitaldia. Ikasturtean zehar era horretako saio ugari antolatzen ditu liburutegiak.

Gazte mailako taldeak hasi du denboraldia

Orain dela bi asteburu hasi zuten denboraldia gazte mailako futbol taldeak; hortaz, bi partidu jokatu dituzte dagoeneko.

Lehenengo partidua etxean jokatu zuten, Eztalako futbol zelaietan. Amaikak Bat taldearen aurka, eta 2 eta 3 golekin irabazi zuten.

Bigarren partidua, berriz, kanpoan jokatu zuten. Orain taldearen aurka; bigarren partidua irabazi egin zuten. Hiru golekin sartu zizkieten oriotarrei, eta 3 irabazi zuten. Erregional mailako taldeak oraingo asteburuan jokatu du denboraldiko lehenengo partidua Aretxabaletaren aurka.

Bi futbol talde bakarrik izango ditugu aurtan

Aurreko denboraldian bi futbol talde izan zituzten Antzuola Kirol Elkarteak; aurtentzen, berriz, azkenean, bi bertatik ez ditu izango: erregional mailakoa eta gazte mailakoa. Infantilen taldeak emakumezkoena eta kadete mailakoa ez ditugu izango aurtentzen. Talde horiek ez osatzen ren arrazoiak izan da jende gutxiaren. Bai kadeteen kasuan, bai nesken kasuan, taldeak osatzeko jende nahikorik ez zegoen katean. Infantilen kasuan, berriz, oraindik ez dakite taldea osatuko duten alaiak; aurtentzen hasiko dute denboraldia.

ELKARRIZKETA

MIKEL KOKA/DANTZA IRAKASLEA

“Denok daukagu edozein dantza ikasteko gaitasuna”

Urriaren 8tik dantza ikastaroa eskainiko dute Mikel Kokak eta Marian Bravok. Tangoa, baltsea, pasodoblea, rumba... Denetarikoz dantzak ikasteko aukera izango dute ikasleek. Mikel Koka irakaslearekin berba egin dugu.

Ze dantza mota ikasiko dute zuen ikasleek?

Hastapen ikastaro bat izango da, eta dantza mota mordo bat ikasiko dugu; mota bakoitzetik urrats batzuk ikasiko ditugu. Tangoa, baltsea, pasodoblea, rock-and-rolla, txa-txa-txa, mambo-rumba, salsa eta fox.

Zer behar da dantzari ona izateko?

Gogo handia eta pazientzia; horrek esan nahi du lan handia egin behar dela, asko praktikatu behar dela.

Zuen ikasleen artean, imajinatzen dut gehiago izango direla neskak mutilak baino.

Bai, beti izaten dira neska gehiago; dena dela, gaur egun garai baten baino askoz gehiago animatzen dira mutilak.

Baina, berezko zer bait ere beharko da, ezta?

Hasteko, ez, nik uste dut oinarritzko maila bat lortzeko gai dela edozein. Edozeinek daukagu ia edozein dantza mota dantzatzeko gaitasuna. Beste gauza bat da goi mailako dantzaria izateko behar dena. Artistikoki zela espresatzen zaren oso garrantzitsua da goi maila horretan, berezko sena behar da.

Kalean eta tabernetan geroago eta gutxiago dantza egiten du jendeak, ezta? Zure ustez, zergatik gertatzen da hori?

Kontua da guk erakusten ditugun dantza mota gehienak leku eta saloi jakinetan bakarrik jartzen dituztela; hortaz, hara joan ezean, ez dugu jendea dantzan ikusiko. Edozein tabernetan ez dizu-

te tango bat edo pasodoble bat dantzatzeko aukera eskaintzen. Bestalde, rumba bat jartzen badute, nik uste dut jende askok dantza egiten duela.

Zeu zela sartu zinen dantzaren munduan?

Marian Bravorekin batera eskainiko dut Antzuolako ikastaroa; Errenteriako Ereintza dantza taldekoak gara biok. Marian, gainera, euskal dantzen irakaslea da Errenteriako kontserbatorioan. Euskal dantzeekin hasi ginen eta dantzarekiko zaletasuna hortik datorrigu. Orain dela hogeit hamar urte hasi ginen beste-lako dantzak ikasten. Tarteka, Antzuolako bezalako ikastarok eskaintzen ditugu.

Zuretzat, zer da dantza?

Dagoeneko bizio bihurtu den zaletasun bat. Hasten zara gustatzen zaizulako, batera eta bestera mugitzen zara, eta ohartu orduko, konturatzen zara ezin zarela mundu horretatik irten.

Ze dantza mota gustatzen zaizu gehien zeuri?

Tangoa; gustukoena eta zailenetakoa. Baltsea ere gustatzen zait; urratsetan sinplea da, baina, erritmoan nahiko zaila.



KONTUOLA

HERRITARRENHITZA/Ainhoa Ugarteburu · Langilea

Kreditu txartela

Bukatu da udia, baita oporrak be, gure bizimodu estresante eta nahasi honetatik ihes egiten laguntzen doskuenak.

Merezi ditudugu, lan erritmu gogorra da, asko eskatzen dau, lan ordu asko sartzen ditudugu, eta gure lantokixetan, geruago eta gehiago eskatzen doskue. Ordu estrak sartzia, zapatu goizak, errelebotan lan egittia... Hiru, lau eta bost errelebotan lan egittia askok eta askok ezagutzen dau.

Gehixenetan, ez beti baina, sarixa eukitzen dau horrek, diru sarixa noski.

Dirua. Horixe da eta ointxe nagusi gure inguruan. Lan egin, dirua irabazi, ez dakitt asko ala gutxi, baina, dirua irabazi, eta gastau. Ta barra-barra, gainera. Arrazoiak asko izan leizke. Gauzak garesti darelako, etxiak, eskolako materiala, argixa, gasa, telefonia, bankua. Baina baita bestela be...

Batez be, gastatziak statusa emuten dabelako. Askotan



“Dirua. Horixe da nagusi. Lan egin, dirua irabazi eta gastau”

Dana materiala da, mekanikua. Lantokixan pasau astia, ta

zentsugabekerixara be ailegatzen gara, geure aparientzia zaletasun horrekin, ta alde batetik barregarria iruditzen baldin bajaku be, nork ez dau inoiz kanpora begira zer bait egin? Dinamika absurdo baten sartuta garenan irudipena daukat. Produzidu-kontsumidu-produzidu...

merkatal zentruetan asteburua. Leku itxi batetik beste leku itxi batera. Aisialdixa kontsumuarekin lotuta dago. Komeni ez jakuna be erosi. Ta hori ordaintzeko lan egin... Ta berriz gastau. Azkar, prisekin...prentsau barik.

Deshumanizatuaz goiaz, erremedixo barik, sistema honen txontxongilo batzuk besterik ez gara.

Batzuek esaten dabe, erritmu jaitsi biharko ginuke-la, luzera kalte besterik ez baitau egiten bizimodu honek, ez bakarrik guri, baita mundu osuari be. Igual arrazoia dauke.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Irailak 24
12:00: Antzuola-Zestoa (Gazteak)
16:30: Antzuola-Aretxabaleta (Erreg.)

PILOTA

Irailak 24 (Gipuzk. Kluben Txap.)
17:30: Olalde-Intza (Nagusiak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Orioko 0 Antzuola 3 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Añorga-Olalde (Gazteak) 2-22
Lazkao-Olalde (Nagusiak) 15-22

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94 ANTZUOLA

DEKORAZIOA

ABAD

PINTURAK

ANTZUOLA

PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa: 943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 31, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko irailaren 23a / 239. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Umeek karate eta oinarrizko soin hezkuntza eskolak jaso ahal izango dituzte.

Kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udal Kirol Zerbitzuak prest dauka ikasturte berrirako kirol eskaintza. Yoga, tai-chi, aerobik, sasoiaren egoteko gimnasia, erretiratuendako gimnasia, karate eta oinarrizko soin hezkuntza ikastaroak daude aukeran. Urriaren 3an eta 4an hasiko dira.

Udal Kirol Zerbitzuan irailaren 30era arteko epea dago ikasturte berriko kirol jardueretan izena emateko. Interesatuak udal txerara jo behar dute horretarako. Joan den ikasturtean kirol zerbitzuetan jardun zuten elgetarrek izena ematearekin nahiko dute; gainontzekoek euren datuekin orria bete behar dute. Esku orriak Bolatoki tabernan edo Udal Kirol Zerbitzuan bertan eskura daitezke.

Ordainketak banketxean egin behar dira, guztiak, edadetuendako soinketa ikastarokoan izan ezik. Haiek udaletxean bertan ordaindu beharko dituzte,

hilero 5,30 euro. Gainontzeko ikastaroen prezioak jarduera bakoitzaren arabera dira: Yoga ikastaroa egiteko 20 euro ordaindu behar dira hilean; tai-chi eta aerobik saioak 15 euro inguru; sasoiaren egoteko gimnasia ikastaroa 9,5 euro. Umeendako prezioak merkeagoak dira: karatean jarduteko ikasturte osorako 10 euro ordaindu behar dira; oinarrizko soin hezkuntza eskolak jasotzeko, berriz, 20 euro.

Yoga eta tai-chi ikastaroak astelehen eta eguaztenetan izango dira eta aerobik saioak, martitzen eta eguaztenetan. Ikastaro horiek 15 urtetik gorakoentzako izango dira. Sasoiaren egoteko

Ikastaroak urriaren 3an eta 4an hasiko dira; kiroldegian egingo dituzte saioak

gimnasiako saioak 16 eta 60 urte bitartekoentzako dira eta martitzen eta eguaztenetan egingo dituzte kiroldegian.

UMEAK ETA EDADETUAK

Adinekoek eta umeek ere izango dute kirolerako aukerarik. Erretiratuendako gimnasia saioak martitzen eta eguaztenetan izango dira. Karateko hastapen eskolak 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek jasoko dituzte, martitzenetan. 6 eta 8 urte bitarteko umeendako, berriz, oinarrizko soin hezkuntza saioak izango dira, eguaztenetan.

Ikastaroak egin ahal izateko gutxienez zortzi laguneko taldeak osatu beharko dira.

OBRAK

Kiroldegian egingo dira ikastaroak baina obrak direla eta urritik azarora bitartean itxi egingo dituzte instalazioak. Tarte horretan Herri Eskolan egingo dituzte kirol saioak, baina horren berri interesatuei emango zaie, behar den garaian.

UDALA

Dirulaguntza eskaera udal proiektuetarako

I.A.

Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzordearen azken bileran erabaki zuen Udalak Eusko Jaurlaritzari hainbat dirulaguntza eskaera egitea. Laguntza horietariko batzuk proiektuak gertatzeko izango dira eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko besteak.

Hainbat proiektu gertatzeko asmoa du Udalak, eta horretarako dirulaguntza eskaera egingo dio Eusko Jaurlaritzari.


Udalaren asmoen artean dago Artekalean urarendako hodia sartzeari; lan horiek egitean, herri sarrerako arkutik Uriburura hodia ez ezik beste hainbat azpiegitura ipini nahi ditu Udalak. Bestalde, kale horretan, lehen

Salbador kalean egin zen bezala fatxadak berritu nahi dituzte horretarako bideragarritasun plana egin behar da.

Torrezahar aurreko aldea berritzeko proiekturako; udaletxean berrikuntza lanak egitea eta herri altzarietarako (Madrako parkerako eta Eskolatik Espaloiarako) eskaileretako barandak ere izango dira laguntzak.

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA

Udaletxean eta kultur etxean berogailu sistema aldatu egiten zuten energia aurrezteko; gasa lioa erabiltzetik gasa erabiltzera pasa ziren. Orain, kiroldegian tabernan ere gauza bera egingo kotan dira. Eraginkortasun energetikoa hobetzeko inbertsio izanik, horretarako ere dirulaguntzak eskatuko ditu Udalak.



Salbador kalean bezala Artekalean fatxadak berritzeko proiektua egin nahi dute.

LABUR

Osteoporosi gaitzaren gaineko hitzaldia eguazten arratsaldean udaletxean

Kutxa Gizarte Ekintzak antolatuta, osteoporosiaren gaineko hitzaldia emango du Jose Luis Martinek datorren eguaztenetan, irailaren 28, 17:00etan udaletxean. Hitzaldi honekin giharretako eta gaitzarrerako hainbat gaixotasun eman nahi dira ezagutzera. Gaitzarrerako sintomak nola antzeman azaltzeaz gain, gaixotasuna jasaten duten nei eguneroko bizitzara moldatzen laguntzeko argibideak emango dizkiete, besteak beste. Hitzaldia edozein herritarrentzako da.

KULTURA

Urritik abendura bitarteko kultur egitaraua gertu dute Espaloian

I.A.

Espaloia Kafe Antzokiak gertu du datozen hiru hilabeteetarako egitaraua kulturala. Deba jazz musika taldeen lehiaketa; hainbat antzerki lan; erakusketak; ikastaroak; eta kultur arloko beste zenbait ekintza izango dira urritik abendura bitartean.

Antzerki lan entzutetsuak ekarri ohi dituzte Espaloira, eta datozen hilabeteetan ere hala egingo dute. Yllana taldearen 666 obra ikusi ahal izango da urriaren 14an, eta 28an Txalo taldearen *Pakitaren-tzat bakarrik* lana. Azarorako eta abendurako, berriz, honako lanak daude iragarrita: *Zanguangoren Pan con pan*; *Txakur beltz handi eta iletsua txotxongilo* lana; eta Ttanttakaren *Shakespeare osoa gutxi gorabehera*.


MUSIKA

Ekitaldien artean leku esanguratsua izango dute musika emaldiek ere.

Deba Jazz musika lehiaketako saioak urriaren 8an eta 9an izango dira eta lehiaketa amaitzeko kontzertua, berriz, azaroaren 4an, Bill Evansekin.

Udalak, bi jazz emanaldi antolatatu ditu: urriaren 21erako bat eta azaroaren 25erako bestea.

Urriaren 18an musika arloko hitzordu garrantzitsu bat egongo da. *Ehungarrenean hamaika: Lauaxeta 2005* ikuskizuna. Mikel Urdangarin, Gari, Eñaut Eloorrieta, Rafa Rueda, Jabier Mugurutz, Anje Duhalde, Txuma



GOIENKARIA


Gari kantariak *Ehungarrenean hamaika* ikuskizunean hartuko du parte.

Murugarren, Petti, Xabier Montoia, Xabi Strubell eta Francis Diezek jardungo dute kantuan.

Abenduaren 16an, berriz, Aterkings eta Señor No taldeen kontzertua izango da.

Erakusketak bi izango dira: margolanena bat eta zeramikena bestea.

Horiez gain, diapositiba emaldia, dantza saioa, josten ikasteko ikastaroa, kirol topaketak eta itzultzaileen mintegia izango dira, besteak beste. Sarrera behar duten ekitaldietarako Espaloian bertan erosia ahal izango dira txartelak, eta baita telefonoz eskatu eta saioa baino 15 minutu lehenago jaso.



Antzinako arku Maalako parkearen sarreran

Maala inguruan parkea egiten dihardute; eta San Roke kaletik sarrera egongo da parke horretara. Sarrera berezia izango du. Izan ere, arku gotikoa ipini dute bertan; Aixola Behekoa baserriko arku, hain zuzen ere. Aixolako urtegia egiteko lanak hasi aurretik Juan San Martinek arku horren berri eman zion Udalari. Udala egin zen arkuaren jabe eta orain egokia iruditu zaio parkearen sarrera ipintzea. Bestalde, plaka bat ere jarriko dute arkuaren jatorria azalduz. /I.A.

JAIK

Kupel bat lapurtu zuten Sagardo egunean

I.A.

Sagardo eguna giro onean ospatu zuten zapatuan Elgetan. Patata tortilla lehiaketan 20 taldek hartu zuten parte, eta sagardoa gogotik edan zuten elgetarrek; 250 sagardo edalontzi saldu ziren. Baina izan zen ezustekorik ere: goizaldean kupel bat lapurtu zuten.

Zazpi kupel ipini zituzten herriko hainbat tabernatan eta plazan gaztetxeok. Afalostean denak batu zituzten, Espaloian ipinitakoa izan ezik; hura izan zen, hain zuzen ere, goizaldean lapurtu zutena.

Gainontzean, giro onean joan zen sagardo eguna eta aipatzekoa da patata tortilla lehiaketan izan zen parte-hartzea: 20 talde guztira. Liyu taldea izan zen irabazle, eta bigarren Arrasateko gaztetxea; haiek tortillarik originalearen saria ere jaso zuten. Hirugarren tokian Fly taldea sailkatu zen. Hona hemen sailkapena:

Sailkapena

1. Liyu
2. Arrasateko gaztetxea
3. Fly
4. J.A.
5. Kiniela zaleak
6. Esna hadi
7. Elgetako gaztetxea
8. Aralar
9. Mikeljoxep
10. Frutititi "iragoira"
11. Izen barikoak
12. Simpsondarrak
13. La kuadri
14. Auzolanian
15. Hamabost frutituti
16. Euskal IRP
17. Atsotitzak 2
18. Tutifruiti
19. Fruti
20. Ponpopoti



I.A.

Tortilla lehiaketan 20 taldek hartu zuten parte.

LABUR

Mendi inguruak garbitzeko irteera antolatu du Maya ingurumen taldeak domekarako

Maya ingurumen taldeak datorren domekan, irailaren 25ean, Elgetako inguruak garbitzeko asmoa dauka. Astean taldekoak herri inguruan ibili dira premiarik handien non dagoen ikusten. Besteak beste, Asentzio eta Arantzeta inguruetara joango direla esan digute. Bertan zaborra jasotzea da asmoa. Orain dela urte batzuk gaztetxeok antolatuta egin zen garbiketa, baina berriz ere beharra dagoela ikusi dute Mayakoek. Garbiketaren parte hartu nahi dutenei dei egiten diete egunean bertan 09:30ean herriko plazan azaltzeko, eta bertatik abiatuko dira.

Urriaren 3an hasiko dira euskara ikastaroak, eta oraindik izena eman daiteke

Udalak euskara ikastaroak ipiniko ditu abian datorren urriaren 3an. Eskaerak aztertu ostean, taldea osatu da eta taldearen baitan bi maila bereizi dituzte: oinarrizko maila, hutsetik hasi nahi dutenentzako; eta beste maila bat ezagutza badutenentzako. Eskolak astelehenetik eguenera bitartean izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Lehen saioa kultur etxean egingo dute, baina baliteke gero ikastaroak eskolan izatea. Ikastaroa egiteko interesa dutenek oraindik izena emateko aukera dutela esan digute udaletxean. Horretarako, urriaren 3an bertan kultur etxera joan eta irakaslearekin hitz egin beharko dute.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a / 20. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Athleticek badu bere lagunartea Oñatin: OZT

OIHANA ELORTZA

Antton tabernan du egoitza Oñatiko Zurigorri Taldeak. Dagoeneko 30 kide inguru dira eta herriko zale guztiak gonbidatu nahi dituzte bazkide egitera. Atzo, eguna, egin zuten lagunartearen aurkezpen ofiziala eta dituzten asmoak azaldu zituzten kideek.

Oñatiko Zurigorri Taldea izenarekin eman du alta Oñatiko Athleticen lagunarteari Athletic klubean. 30 lagun inguru dira dagoeneko, baina Oñatin "Athletic-zale asko" daudela diote, eta guztiak gonbidatu nahi dituzte lagunarteko bazkide egitera.

Antton tabernan du egoitza lagunarte horrek eta karguak aukeratuta dituzte dagoeneko: Jexux Arregi da presidentea, Jorge Palacios presidente-ordea, David Blazquez diruzaina eta Eneko Blanco idazkaria.

ZOKKETAK ETA BIDAIK

Oñatiko Zurigorri Taldeak abonu bat hartu du eta San Mameserako bi sarrera zozketatuko ditu bazkideen artean Athleticcek etxean jokatzeko duenean. Bilbo-



Oñatiko Zurigorri Taldeko kide batzuk Antton tabernan.

ra bidaia egiteko asmoa ere badute, eta Gabonetako loteria aterako dute laster.

Inguruko herrietan ere badaude Athleticceko lagunartek, eta

Bergarakoak, adibidez, asko lagundu ei die.

Eurekin harremanetan jartzeko, Antton tabernara joan edo idatzi hona: ozt2005@hotmail.com.

GAZTELEKU ETA GAZTETXE AUZIA

Ezker Abertzaleari erantzun dio Udalak

O.E.

Gaztelekua eta Gaztetxea "paraleloak" direla esan zuen Ezker Abertzaleak, eta EAJren jarrera salatu zuen. Udal Gobernu Batzordeak gazteek ez dutela inoren kontrola onartzen esan eta gazte batzordean parte hartzeko eskatu dio Ezker Abertzaleari.

Joan den astean, Ezker Abertzaleak prentsurrekoa egin zuen, gazteriaren inguruan Oñatin sortu diren azken gertakizunen inguruko iritzia emateko. Ezker Abertzaleak esan zuen Gaztelekua zein Gaztetxea zilegiak direla Oñatin, "baldin eta norberarekin askatasuna zein elkarbizitzarako oinarriko arauak errespetatzen

diren". Gaztetxea okupatu zutenetik gazteria "EAJren mehetxupear" bizi dela ere esan zuen Udal Gobernu Batzordeak. Erantzpen horiei erantzun die gazteek "zuen kontrola erabazteko dutela onartuko esanaz.

GAZTE BATZORDEA

Udal Gobernu Batzordeari "bizi eta esanguratsua" iruditzen zaien Ezker Abertzaleak "Gazte Batzordearen bileretara huts egitea" eta "benetan akordioaren bila" eta gazteen alde" badaude, ekarpenak han egiteko esan dio Udalak.

Bestalde, Gobernu Batzordeak gogoratu nahi dio Ezker Abertzaleari, beti jaso duela euren babesa "Gaztelekua Oñatiko gazteriarendako azpiegitura izan zedin", eta "orain arte bat etorri" direla Gaztelekua irekitze eta ixte ordutegiarekin eta adinaren eta kontsumoari mugak jarzateko orduan. Bestetik, "Gaztelekua gertatzen ari diren arau-hausteen erantzule" ez egiteko eskatu dio Udal Gobernu Batzordeari Ezker Abertzaleari, eta esan dio berak ere jakin badakien Gazte Asanbladako kideekin "hitz egiten" ari dela Udalak.

Gazte Asanbladako kideekin hitz egiten ari dela gogoratu dio Udalak Ezker Abertzaleari

LABUR

'Nik be badakit... ingu?' leloak irabazi du Laixanek antolatutako pegatina lehiaketa

Nik be badakit... ingu? leloak irabazi du Laixanek antolatutako pegatina lehiaketa. Arrasateko Julen Mendizabalena da. Atzeko kaleko jaietarako etorri zen Julen Oñatira, eta tabernetan kaxak ikusi eta lehiaketan parte hartzea erabaki zuen. Lelo bat baino gehiago bota zituen gainera. 60 euro irabazi ditu Julenek, eta Laixani eman dizkio. Laixanek 4.000 pegatina inguru aterako ditu jaietarako lelo horretarako.

Eskularen ikastaroetan egindako lanen erakusketa 28a arte dago zabalik

Herritarrek eskularen ikastaroetan egindako lanen erakusketa zabaldu dute kultura etxean. Pintura ikastaroan egindako lanak, goak, hari eta orratzekin egindako toailak eta gortinak eta zerramika eta zaharberritze ikastaroan egindako altzariak daude erakusketan, adibidez. Eguaztena bitartean egongo da zabalik erakusketa, 18:30etik 20:30era. Udalak antolatzen ditu ikastaro horiek, eta Bidebarrietako lokalean egiten dituzte urtean zehar.

SAN MIGEL ETA ERROSAIXO JAIK

Bost egun bakarrik falta dira txantxikua jaitsi eta jaiak hasteko

OIHANA ELORTZA

Datorren eguaztenean jaitziko da txantxikua San Migel parrokiatik txosna-gunera, 20:00etan, eta orduantxe hasiko dira aurtengo San Migel eta Errosaixo jaiak.

DANBORRADA ETA MOZORROA

Aurreko urteotan bezala hasi eta bukatuko dira aurtengo jaiak ere: San Migel bezperan danborrada egongo da eta Errosaixo biharan eguna koadrilen eguna izango da, mozorro eguna. Bitartean,

musika, umeendako jolasak, kirola, sokamuturra, motor erakusketa, barrakak, paella, herri eguna eta gehiago dago.

TXAKURRAK ETA EUSKAL ARRAZAK

Hala ere, irail osoan dago jai giroa Oñatin. Atzeko kaleko jaiak, Haurren Eguna eta asteburu honetan bertan egingo duten Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa. Domekan, etzi, egingo dute eta 46. aldia izango da. Asteburu honetan, gainera, Artzainen Munduko III. Topa-

ketak jarraipena izango du Arantzazun. Zapatuan, bihar, Euskal Herriko Arrazen X. Erakusketa egingo dute Unibertsitate parean eta gai horren inguruko jardunaldiak egingo dituzte astelehena bitartean. Nazioarteko adituak etorriko dira hitz egitera.

AURREKONTUA

Aurtengo jaien aurrekontua 126.304 euro da. Kontratazioetan, herriko hainbat taldetan eta azpiegituran erabiliko dute diru kopuru hori.

Etixerako ederrena, Zanguitun



deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4 BERGARA • Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurritan
- Funda nordikoak
- Edredoiak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

ZANGUITU margoak

Irala z/g BERGARA • Tel.: 943 76 19 54

IRU margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE • Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Moksetak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxean ipintzea.



Orain daukazu aukera zure Lanbide Heziketako ikasketak hasteko edota bukatzeko, zure beharretara moldatzen den ondoko doaineko eskaintzarekin... BERGARAN !!!

ESKANTZA PARTZIALA- ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK	LANBIDE MODULOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazio bidezko produkzioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazio, konformazio eta muntaia prozesuaren definizioa
ERDI MAILAKO ZIKLOAK	LANBIDE MODULOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazioa • Ekipo eta instalazio elektroteknikoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketa bidezko fabrikazioa • Mekanizatutako produktuaren ezaugarrien kontrola • Lanerako prestakuntza eta orientabidea • Hizkuntza teknikoa • Automatismoak eta koardro elektrikoak • Etxebizitzetako eta eraikinetako instalazio bereziak
<p>ZUZENDUA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona helduei zuzendua, Berriazko Lanbide Heziketa era malguan ikasteko aukera eskainiz, ikaskuntza beraien beharretara egokituz. <p>BALDINTZAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Beharrezkoa den titulua izatea (DBH, LH1) E.M zikloentzat eta (batxilergoa, FP2) G.Mkoentzat. • 21 urtetik gorako pertsonentzat edota gutxienez bi urteko lan esperientzia egiaztatuta dutenentzat. 	

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO IKASTAROAK

- ZUZENDUA:**
- Heziketa zikloak egiteko sarrera baldintzarik ez, eta lanbide heziketa ikasi dutenentzat.

IZENA EMATEA: Irailaren 25era arte. **ORDUTEGIA:** : Arratsaldez, ikasleekin adosturik.

Ibargarai 1 • 20.570 BERGARA • Tel.: 943 76 24 91/ 943 76 38 40
Faxa: 943 76 38 41 • E-posta: imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izar" gogoneko kalifikazioa Bertsoa mugatuaren babesean

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatzeke.

www.nuevozafira.com.es

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

Giauto

Olaso 25. Elgoibar
Otaola etorbidea 29. Eibar
Olabarrena auzoa z/g. Bergara
San Andres auzoa 10D. Arrasate
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

GMAC FINANCIAL SERVICES